



# taxi kitto!



**Tor magoarekin,  
aho bete hortz**



Euskara Elkarte

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartea.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Tor magoa

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Zertan desberdintzen dira  
kotxe bat eta komun bat?  
Kotxean eseri egiten zarela  
korrika egiteko, eta komunean  
korrika egiten duzula esertzeko.



Ume batek amari:  
- Ama, ama, zein  
egunetan jaio nintzen?  
- Uztailak 13.  
- Ala! Nire urtebetetze  
egun berean!!



Mozolo bat eta azkar  
bat gelan daude eta  
esaten dio azkarrak  
mozoloari:  
- Itzali argia.  
Mozoloak argia itzali eta  
berriro pizten du. Orduan,  
esaten du azkarrak:  
- Zergatik piztu duzu  
berriro?  
- Ea itzali dudan ikusteko.



- Ama, ama, aita  
magoa da?  
- Ez, seme, ez.  
- Ama, ama, aita magoa  
da?  
- Ez, seme, zergatik  
galdetzen didazu hori?  
- Aitak kable bi elkartu,  
txinpartak atera eta desagertu egin da-eta.



Gipuzkoako Foru Aldundia



Irakasleak ikasle bati gelan:  
- Zenbat hezur ditugu garezurrean?  
- Ez dakit, irakasle, eta hori guztiak buruan ditudala!



Gizon bat jai-aretoko atezainarengana hurbildu zen.  
- Aizu, hemen al da nagi eta alferren lehiaketa?  
- Bai, jauna, sartu barrura.  
- Ez, ez, sar nazala norbaitek.



Errugbi partidara ailegatu da lagun bat partida hasita zegoela eta zera galdetu du:  
- Nola doaz?  
- Husna  
- Nork sartu du lehenengo hutsa?




Lasterketa batean:  
- Aita, zergatik doaz korrika bizian gizon-emakume horiek?  
- Lehenengo ailegatzen denari saria ematen diotelako.  
- Orduan, zergatik egiten dute gainerakoek korrika?




# Denborapasak




## PUNTOAK BATZEN





# LABIRINTOA



# Denborapasak




## 10 desberdintasunak




## HIZKI-ZOPA


Zein asteko eguna falta da hizki-zopan?

A	C	W	T	A	T	N	D	B	A	T
T	U	Q	A	S	A	O	P	C	A	R
A	R	D	S	T	E	Q	E	G	L	Y
B	U	I	T	E	T	R	I	E	A	H
N	X	O	E	L	R	J	G	M	R	H
U	Z	O	A	E	A	V	A	W	I	S
R	J	H	Z	H	E	N	N	U	T	S
A	C	N	K	E	T	C	D	T	S	C
L	C	B	E	N	S	R	E	L	O	F
E	M	A	N	A	A	L	A	X	T	U
V	L	N	A	N	W	B	P	W	L	U



# MARGOTZEKO





ni bai artista!

## Itsas hondoa botilan

Itsasoaren falta igartzen duzue? Itsas hondoa urruti sentitzen duzue? Bada, zuen desioak beteko ditut. Zuek nahi duzuen moduko itsas hondoa egingo duzue botila baten barruan.



### MATERIALA:

- Plastikozko botila hutsik (aho zabalekoa).
- Koloratzaile urdina.
- Sukaldeko olioia.
- Itsas barraskiloak, txirlak... (plastikozkoak izan daitezke).
- Inbutua.
- Harea.
- Ura.


### Nola egin:

- 1.- Bete botilaren bi heren urez. Gehitu koloratzaile urdina edo margo urdina eta nahastu ondo, kolore urdina hartu arte.
- 2.- Gehitu harea, barraskiloak, txirlak eta koloretako arrainak. Olioia sartu. Ezingo denez urarekin nahastu, olatu dibertigarriak sortuko dira.  
Eta hor duzue! Eskulan polit-polita!





ni bai artista!



## Taumatropoa



### Nola egin:

- 1.- Hasteko, moztu kartoizko zirkulu bat eta kartoizkoaren neurri bereko paperezko bi zirkulu. Egin marrazki bat paperezko zirkulu horietako bakoitzean. Marraztu kaiola zirkulu batean, eta txoria, bestean.
- 2.- Orain, itsatsi marrazkien paperak kartoiaren alde banatan. Kontuan hartu taumatropoa lokarri batez birarazi behar baduzu, marrazkietako bat buruz gora eta bestea buruz behera itsatsi behar dituzula; izan ere, zirkulua gora eta behera biratuko da.
- 3.- Aldiz, egurrezko zotz bat erabili nahi baduzu, itsatsi biak berdín orientatuta, zirkulua esker-eskuin biratuko baita.
- 4.- Eta, orain, birarazi eta gozatu emaitzaz!

### MATERIALA:

- Kartoia
- Paper bat
- Arkatza edo errotulagailua
- Lokarri edo zotz bat



Zuk *galdetu*,  
guk *erantzun*

Ba al zenekien Egiptoko  
piramideak zuriak zirela?

Giza hilerria zen, berez, eta piramide bakoitza, hilobi bat. Gaur egun ikusten diren piramideetatik barneko gunea besterik ez da gelditzen; jatorrian, kareharri leunduz estalita zeuden kanpotik, eta malda leun distiratsua zuten, horri esker. Kanpoaldeko geruza hori Kairoko beste egitura batzuk eraikitzeke erabili zuten, piramideak arpilatuta. Kontu bitxia, ezta?





sukal-saltsan

## Txokolate pipitadun gaileta

Ummm... Zein gozoak irtengo zaizkizuen gaileta hauek. Egin aurretik badakit nik hori!



### OSAGAIAK :

- 150 g gurin
- 150 g txokolate beltz (%70)
- 150 g txokolate esnearekin
- 315 g gari-irin
- $\frac{3}{4}$  koilaratxokada gatz eskametan
- $\frac{1}{2}$  koilaratxokada bikarbonato
- 90 g azukre
- 150 g azukre-beltz
- $\frac{1}{2}$  koilaratxokada banilla esentzia
- Arrautza bat
- Goringo bat

### Nola egin:

- 1.- Osagaiak prestatu eta osagai lehorrak nahastu. Gurina berotu urtu arte eta utzi hozten. Txokolatea txikitu, sukaldeko robota erabilita edo eskuz. Nahastu irina, bikarbonatoa eta gatz katilu batean.
- 2.- Masa egin. Nahastu urtutako gurina, azukrea eta banilla. Gehitu arrautza osoa eta goringoa eta irabiatu. Iragazi aurretik nahastu dugun irina, bikarbonatoa eta gatz eta amaitzeko gehitu txikitutako txokolatea. Hasieran egurrezko koilara batekin edo espatula

batekin nahastu eta eskuekin nahasten amaitu. Film batean masa batu eta utzi hozkailuan, gutxienez bi orduz, hobeto egun batetik bestera.

- 3.- Forma eman. Labea piztu 160 graduan, atera masa hozkailutik eta eman forma eskuekin, horretarako 35-40 g-ko bolatxoak egingo ditugu. Prestatu erretilu bat labeko paperarekin eta joan gainean masa-bolatxoak jartzen, kontutan izan egosterakoan zabaldu egingo direla, beraz, utzi tokia elkarren artean.
- 4.- Labekatu labearen erdialdean 12-15 minutuz. Hasieran bigunegiak diruditen arren hoztu ahala apur bat gogortuko dira.



## Patata beteak

Oraingoan errezeta gazia egingo dugu...  
eta gozo-gozoa, jakina!

### Nola egin:

1. Patatak albal-paperean bildu eta labean eduki 180 gradutan 45 minutuz.
- 2.- Moztu patataren goiko aldea eta koilara batekin patata hustu. Gurin apur bat sartu zuloan. Gatza bota. Ondoren urdaiazpiko zatitxoak eta gazta gehitu, baina utzi lekua arrautzarentzat.
- 3.- Arrautza bota zuloan, kontu handiz, apurtu gabe. Gazta eta urdaiazpuko gehiago bota dezakezue gainetik. Gatza bora.
- 4.- Labean sartu 180 gradutan 20-25 minutuz, eta ateratzerakoan perrexila edo tipulina jarri gainetik.

### OSAGIAK:

- Patata handiak (pertsonako bat)
- Arrautzak
- Urdaiazpikoa (egosia ere izan daiteke)
- Gazta birrindua
- Perrexila edo tipulina
- Gurina





# zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia

6 urtetik aurrera

## Zoriontsu izateko errezeta

Nik nagusitan sukaldaria izan nahi dut, munduan diren errezeta gozoenak prestatzen dituen nire aitona bezala. Nire errezeta gustukuena denen artean sekretuena da; izan ere, nire aitonak zoriontsu izateko errezeta ezagutzen du.



## Printzesek ere puzker egiten dute

Lauraren aitak printzesen liburu sekretua ireki, eta inork ez zekien zerbait kontatu zion alabari... Jakin ezazu jendeak ezagutzen ez duen sekretu horren berri.



8 urtetik aurrera

## Besarkada bat, beharbada

Arazoak bata bestearen atzetik pilatu zaizkio Eleneri, eta, gainera, urtebetetze-eguna zapuztu dio lagun batek. Zer egin? Amari betiko besarkatuta egon nahiko luke, eta halaxe gertzea eskatuko du kandelak itzaltzeko unean. Arranopola! Nola jakin desioa bete egingo zela? Amari kateatuta dago geroztik, pega-pega eginda daude biak, eta hala egotea ez da hasieran zirudien bezain polita. Ala bai? Kontuz desioekin, bete egin daitezke-eta!



## Barraskilo detektibea eta Saihetsandiren misterioa


Barraskilo detektibe ausartak eta horren laguntzaile leialak, Eustakio zizareak, urmaelaren inguruko lapurreten kasu bitxia argitu behar dute. Baina, bat-batean, inork itxaroten ez zuen gertaerak osoan aldatu du ikerketaren norabidea: gure lagunak bizi diren urmaela ur guztia galtzen ari da. Inork ere ez du misterioa ulertzen eta azkoak larrituta daude; urmaela sikatuz gero, inork ere ez du bizirik iraungo. Gauza izango ote da barraskilo jakintsua erruduna aurkitzeko eta bere adiskideak salbatzeko?



10 urtetik aurrera


## Arrastoa

36ko Gerra Zibilaren atarian, guardia zibileko detektibe bat bidali dute Lekunberrira hilketa bat ikertzera. Hantxe ezagutuko du pertsonaia bitxi bat, herriko aguazila, eta haren bizitza kontatuko digu, zeina korapilatzen baita, azkenean, hilketarekin eta gerra hasi berriarekin.



## Everest

Munduan bada hazten ari den mendi bat. Lurreko tokirik altuena da, alpinista abenturazaleen erronka gorena, Sagarmatha zeruko jainkosaren irudi izugarri garaia... Ongi etorri Everest-era! Liburu eder honetan, mendiaren jatorri zaharrera bidaiatuko duzu, oinetan dituen animalia eta landareei buruz ikasiko duzu eta inguruko kultura eta historia aberatsaren berri jakingo duzu.



# Tor magoa



Nork ez du ezagutzen Tor magoa? Zuetako gehienok bai, seguru. Eibarren ere askotan izan dugu, eta aho zabalik utzi digu bere triki-mailuekin. Getxon jaio zen 1982ko maiatzaren 23an eta bertan bizi da gaur egun.



- **Itsasoa ala mendia?**

Itsasoa.

- **Gazia ala gozoa?**

Gazia.

- **Jatekorik gustokoena?**

Almejak saltsa berdean.

- **Gutxien gustatzen zaizuna?**

Denetarik jaten dut... agian, intsektuak eta horrelako kontuak ez.

- **Umetako oroitzapen polit bat?**

Aititerekin tortila-pintxoak gosaltzen.

- **Ametsetako oporrak non?**

Irla desertu bateko hondartzan konpainia onean.

- **Zein gonbidatuko zenuke**

**etxera?**

Frédéric Chopin pianista ohia, bere pianoa zuzenean entzuteko.

- **Zein ez?**

Errespetu faltadunak.

- **Miresten duzun norbait?**

Albert Einstein.

- **Telebistako saio bat?**

Naturako dokumentalak.

**Izena:** Tor

**Abizena:** Magoa

**Jaioterria:** Getxo

**Jaiotze-data:** 1982-5-23



- **Nora ez zinateke inoiz joango?**

Uste dut ez dagoela joango ez nintzatekeen lekurik... Tira, pikutara ez nintzateke joango.

- **Kolore bat?**

Berdea.

- **Zenbaki bat?**

8.

- **Animalia bat?** Gepardoa.

- **Kirol bat?**

Futbola.

- **Mago bat?**

David Copperfield.

- **Umetan gustatu zitzaizun**

**pelikula bat?**

Aladdin.

- **Betetzea nahiko zenukeen**

**amets bat?**

Hegan egitea.

- **Sekula jantziko ez zenukeen**

**arropa?**

Sekula, sekula... Inauterietan dena da posible!

- **Eta zure armairuan falta ez**

**dena?**

Jaka elegante bat.

- **Mutil izena?**

Sofronio.

- **Neska izena?**

Nelly.

- **Umetan gehien gustatzen**

**zitzaizun ikasgaia?**

Natura eta matematika.

- **Eta gutxien?**

Gizartea.

## BITXIKERIAK



Intsektu batzuek usaimen-zentzumena antenetan daukate. Pipiak, adibidez, 60 kilometrotara usain dezake.



Gizakiak 10.000 usain bereizten eta gogoratzen ditu. Jakingo duzu txakurrek euren eta jabeen datuak dituen txipa eraman beharra dutela, ezta? Pelikuletan pertsoneri ere jartzen dizkiete, baina, orain, errealitatean ere erabiltzen hasi omen dira.



Bi igerileku betetzeko adina listu sortuko duzu zure bizitzan.



Erleek, eskuan hartuz gero, heldu eta nahikotxo min egiten dute; ezta, argizaria eta erregina-jelea ere egiten dute. Eta, kafe-uzta areagotzen ere laguntzen dute.



Karramarroek ere kanpo-eskeletoa badute, baina hainbat aldiz berritzen dute bizitzan zehar (zaharra bota eta berria sortu). Hau da, ez dute geruzarik metatzen. Beraz, ez dute adinik; ez neurtzeko modukoa behintzat.



Hegazkinek dituztenei kaxa beltz deritzen arren, benetan horiak, laranja edo gorriak izaten dira.



Barre eta lo egiteak sekulako mesedea egiten diote gure osasunari.



Txinako panda hartz erraldoiek haurdun dauden itxurak egin ditzakete janari gehiago eta tratu berezia jasotzeko.



## ipaina

# Zergatik dute dortokek eskola?

Zeus Greziako jainko guztiem erregea zen. Ahaltsuena ere bai. Oso erraz haserretzen zen eta izpiak edonora jaurtikitzen zituen. Gainerako jainkoek beldur handia zioten. Behinola, Zeusek ezkontzea erabaki zuen eta animalia guztiak ezteistoruntzara gonbidatu zituen. Egun handia heldu zenean, animaliek bidaiari ekim zioten, zaunka eta arrantzaka, bafadaka eta uluka, orroka eta kurrinka, pozez kantari. Ezin hobeto igaro zuten eguna, euren gustuko platerak dastatuz, ase arte. Zeusek irribarretsu begiratu zituen animaliak. Baina bat-batean bekohia zimurtu zuen.

- Non dago dortoka? -galdetu zion Hena emazte berriari. - Zergatik ez da etorri?

Henak ahalmen bereziak zituenez, berehala jabetu zen dortoka ez zegoela gainerako animalien artean.

- Bihar bertan bisitatuho dut dortoka eta galdetuho diot zergatik ez den etorri -esan zuen Zeusek.

Biharamunean, erreka bazterrean ikusi zuen dortoka Zeusek.



- Dortoka, zergatik ez zinen atzo etorri nire eztei-oturuuntzara, beste animalien moduan? -galdetu zion Zeusek adeitsu.

Dortoka erreka ondoan zegoen, orri handi baten barruan ezkutatu nahirik. Mutu gelditu zen, ez zuen barbarik ere aipatu.

- Zer dela eta ez zinen nigana etorri? Erantzun bizkor!

Dortokak burua altxatu eta xuxurlatu zuen erabat iharatuta:

- Ez dago norbere etxean egotea bezalakorik!

Zeus erabat sumindu zen. Horren indartsu sikuhatu zuen, non txori guztiak izutu eta berehala hasi ziren hegaka.

- Beraz, hemendik aurrera zure etxea eramango duzu bizkarrean, edonora zoazelarik.

Jarraian, Zeusek hori esanda, alde egin zuen tximisten eta trumoiien artean. Berehala igarri zuen dortokak zama iharagarria gorputzaren gainean. Oskola gogorra eta astuna zen, ia erabat estaltzen zuena. Ezarrian alde egiten ahalegindu zen, baina burua, buztanaren muturra eta lau hankak baino ez zituen atera eskoletik kanpora. Geroztik, munduko dortoka guztiak etxea bizkar gainean daramate, eta poliki poliki mugitzen dira. .

Greziako ipaina



zu margolari